



Gabon Zoriontsuak! ¡Feliz Navidad!

CARITASEN ERAKUNDE-KANPAINA – 2025eko EGUBERRIAK
LOR DEZAGUN BIZITZA DUINA IZATEA ZORTE KONTUA EZ IZATEA

Liturgia-gidoia. Abendualdiko 4. Igandea
(2025/12/21)

Sarrera

Ongi etorri ospakizun honetara. Urtez urte, egutegian beti egun berberak datoz, baina guretzat Gabon gau eta Eguberri egun bakoitza beti dira gertaera berri, adore ematen digute beti. Urtero, asko ematen digute, eta guk asko dugu bizitzeko eta besteei kutsatzeko. Eguberri bakoitza aukera berri bat da: gu Jesusez blaitzeko aukera, eta Jesusengandik gure bizitza fedez, itxaropenez eta karitatez betetzekoa.

Eguberria dei bat ere bada: gu garen onena, daukagun onena eta egin dezakegun onena praktikan jartzeko deia. Zerbait egin ezean, zenbat pertsonak eta familiak, gertukoak nahiz urrutikoak, biziko dituzte eguberri penagarriak? Jende askorentzat oraindik hor daude gerra etengabeak, pizten diren indarkeriak, askoren eta askoren bakardadea, etxebizitzaren eta bizitokiaren arazoa, enplegu prekarioak, hainbeste jende emigratzera edo babesa eskatzera behartuak... Eguberrietan Jesus abegi onez hartzen dugula adierazi eta erakuts dezakegu, Jesus premia duten pertsonengan eta familietan hartuz, zeren... **«pertsonok gauden bitartean, badago itxaropena».**

Gaur, eguberrien atarian, Caritas guregana dator, eta gogorarazten digu besteengan ikusi eta hartu behar dugula Jesus: zehazki, jende xumea, pobreengan, bizitzan aurrera egiteko bidean oztopo itzelak dituztenengan, haien aurpegi, bizitza eta zailtasunetan. Haurrak eta Betleemgo familiak egiazko karitatara egiten digute dei orain: **«Lor dezagun bizitza duina izatea zorte kontua ez izatea»**, eta bai, aldiz, ekintza solidarioko proiektu bat eta egunez egun haziz joango den egia bat.

Penitentzia-ekintza

Jesusen jaiotzaren hurbiltasunak Harengana hurbiltzera eta Haren antza izatera bultzatzen gaitu; horretarako, Jesusen grazia eta barkamena behar ditugu.

- Jauna, batzuetan ez baitugu lortzen gure anai-arreben egoera penagarrietan Zu ikustea. **ERRUKI, JAUNA.**
- Kristo, karitatea eta senidetasuna benetan emankor direla ez baitugu sinesten batzuetan. **KRISTO, ERRUKI.**
- Jauna, guk konpondu beharrekoa Zuk konpondu eta zuzendu dezazun nahi izaten baitugu askotan. **ERRUKI, JAUNA.**



Gabon Zoriontsuak! ¡Feliz Navidad!

Irakurgaiak

1. irakurgaia. Is 7, 10-14: Israelgo herria inguruko potentzia militarrek mehatxupean daukate. Jainkoak emandako «ezaugarriak» ez ditu ulertzen Akaz erregeak, ez da haietaz fio. Bestelako «ezaugarri» edo zeinuak nahi eta espero ditu erregeak: boteretsuak. Jainkoak, baina, zeinu xume eta salbamenezko baten bidez etorriko dela ematen du aditzera: Jainkoa haur baten bitartez etorriko da, bere seme Emmanuelen bitartez.

2. irakurgaia. Erm 1, 1-7: Jesus Jainkoaren presentzia salbatzailea dela aitortzen du Paulok. Amaitu da etorkizuna hots egiten zuten zeinuen garaia. Jesus jada oraina da, Jainkoa bera behin betiko gure artean.

Ebanjelioa. Mt 1, 18-24: Zalantzak izan arren, Josefek Jainkoaren nahia onartu eta bete egiten du, erruki handiz. Ez du ondo ulertzen zer gertatzen ari den. Hala ere, zalantza izanagatik, uste ona duenez Jainkoarengan, Mariarengan, aurrera egiten du. Josef ez da eragile pasibo bat. Protagonista diskretu bat da, gizon ona, eta aintzat hartu eta antzeratu beharreko eredu bat.

Fededunen otoitza

Jainkoari eskatu nahi diogu erakutsi eta lagundu diezagula eguberri bene-benetakoak izaten, fedez, itxaropenez eta karitatez beteak. Hala ospatu nahi ditugu, eta hala eskatzen diogu gaur:

- Elizaren eta elizako kide eta komunitateen alde, mundu honetan Jainkoaren presentzia errukior eta bihozbera izan gaitezen, bereziki txikientzat eta behartsuentzat. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Jende askok igaro beharko ditu eguberriak beste behin ere indarkeriaz, gerraz, jazarpenez, gehiegikeriaz eta bazterkeriaz inguratuta, beren zoritxarrean babesik eta laguntzarik gabe, bakarrik edo marjinatuta... Haien guztien alde, beti duintasunez eta elkartasunez tratatuak, abegi onez hartuak eta lagunduak izan daitezen. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Eguberri hauetan, Jesusek, haur egina, sentimendu emankorrak piztu ditzan guran: errukia, bakea, justizia eta senidetasuna. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Ospakizun hauetako poz eta baretasunak bihotz emanda, gure komunitate eta familiekin senidetasunez, eskuzabal eta karitatez joka dezaten. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.
- Gure laguntzarekin batera, Caritasek artatu eta arindu ahal izan ditzan prekaritate eta pobreziak, neke eta saminak, eta jakin dezan jendeari itxaropena ematen, premiatik, bazterkeriatik, bakardadetik eta injustiziatik irteten laguntzeko. ENTZUN JAUNA, GURE ESKARIA.

Eskatzen dizugu, Aita, Zuganako atxikimendua eta gehien behar dutenenganako karitatea erakutsiz bizi dezagula Jesusen jaiotza eguberri hauetan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.



Gabon Zoriontsuak! ¡Feliz Navidad!

Agurra

Senidetasun- eta karitate-jardunerako elizbarruti eta parrokiako erakundea da Caritas. Elizaren nahiz jendearen ahalegin askoren batura da. Batzuek gorputz-arima jardunez egiten duten lan boluntarioak eta jende askoren eskuzabaltasun materialak hainbat eta hainbat pertsona eta familiaren beharrak arintzen eta konpontzen dituzte. Senidetasunezko truke emankorra da, Jainkoaren seme-alaba direla badakitela-eta eman eta hartzea, Aitak denontzat utzitakoa ondo eta zentzuz kudeatzea. Hauxe da orain gure eguberrietako ahalegina: **«Lor dezagun bizitza duina izatea zorte kontua ez izatea»**, eta bai, aldiz, proiektu sozial justu eta senidetasunezko baten emaitza.

Bihurtuko ahal dugu egun hauetan egia ideal ebanjelikoa: **«pertsonok gauden bitartean (eskuzabalak eta horretarako prest), badago itxaropena»**. Eguberri hauetan, Kristo jaio berria ondoan, izan bitez oparo adiskidetasuna, bakea, justizia, senidetasuna eta karitate ebanjelikoa.

Eskerrik asko! Eguberri on!